



# LOU PROUCLAM DE SIROS

## ALLELUIA

Hau da Elizari barrutik Bazkotan ateratzen zaion bozkariozko oihu. Izan ere hau da gure eguna.

Zuhaitzaren azpian galdu genuen askatasuna. Zuhaitzaren azpian galdu genuen zazpi hibai zituen lurra.

Alleluia abesten du Elizak berriro zuhaitzaren ondoan biltzen gaituelako sakabanaturik geunden senideok. Zuhaitzaren ondoan hasi gara berriro herri izaten. Zuhaitz horren ondoan erabakiko da zazpi iturri dituen lurraren jabegai izatea.

Aldageta sakon honen adierazgarri dugu Bazkoa.

Elkarrengandik urrundurik geunden senideok mahai baten inguruan eurtzeko eskubidea dugu. Deiturik gaude Bazko bazkarrira. Elkar berotu eta goxatu ahal izango dugu Aitaren sukaldetan, su herriaren ondoan. Hilak bizturik, gaixoak sendaturik, herbesteok etxeraturik, senideok pozturik ospa ahal izango dugu askatasunaren eguna.

Baina zazpi hibai dituen aberri hori urrutu dago oraindik.

Garestia da askatasuna. Zuhaitzaren adarretan zintilikaturik odolustea eskatzen du. Txorotzat, biraolaritzat, Jainkogabekotzat, deabruzat eta nahastailatzat hartua izan da Jesukristo biztu aurretik. Salaketak, saldukeriak, ixekak, zigorkadak, giltzapea, barkadatea eta gurutzeko heriotza jasan ditu askatasuna lortzearen.

Alleluia. Bazko eguna. Hau da Jaunak guretzat egin duen eguna.

Egun honetan agintzen zaigu galdu genuen lur joria.

Egun honetan eskaintzen zaigu gure askatasuna.

Hau da gure eguna.

Horretarako, ordea, geurekoikeriak utzi behar ditugu, gorrotoak, ezin-eramanak, zatiketak. Maitasunezko lokariz ikertzen jakin behar dugu.

Maitasunez elkartu: loturak hausteko, uztarriak puskatzeko, bigegabekeriak eta zapalzetak desegiteko. Baina hori ez da jolasa. Horrek ukapen gogorra dakarkio bakoitzari.

Ez dezagun ahanzt borrokan, nekean, lanean, gurutzean eta heriotzean Jesukristorekin lagun ez garenok, ez gara kideko izango biztuerakoan, lurraren jabe egiterakoan, askatasun egunean.

Beraz, gurutzeta lepoan hartu eta segi aurrera. Aurrera jarraituz izango dugu anaio elkarrekin biltzeko aukera. Honela izango gara hanga eta hemengo, herri bat.

Bizitza gogorra da. Borroka da. Borroka, berriz, luzea da.

Baina ez dugu etsitzeko arrazoirik. Haziak ere lurpean useldu behar du erneko bada eta landaretuko.

Neguaeren ondoen dator udaberria. Gurutzearen ondoan garai-pena. Heriotzaren ondoan biztueria.

Alleluia. Hau da gure eguna. Alleluia, alleluia.

Bestetan ere aipatuak ditut xehetasun hauek. Egia da, Baina «Siros-ko Agiria» ezagutu berria dudalarik, eta Biarnoan gertatzen ari den aldakuntza harrigarriaz mintzatzera noalarik, zilegi bekit zenbait bederen berriro gogoraztea.

Nork ez du inoiz Paueko «Boulevard des Pyrénées» kale-talari ederraren berririk entzun? Nork ez daki XIX mendean barrena, Paue hiri protestante-ohia izan dela britaindar turista aberatsen ametsa?

Nork daki, ordea, euskaldunen artean, Paueko harmarriaren ezagugarria Nafarroako kateak direla? Nork ote daki gure artean Paueko Diputazioari «Parlement de la Navarre» deritzala gaur ere? Nork ote daki Zuberoko Forua biarneraz idatzia izan dela? Nork daki Biarnoko Eskiula, Inhasi, Sarraltzune, Arantze, Jeuruntze, euskaldunak izan direla oraintsu arte, eta euskaldun dirautela baserrietan, behinola mendialde osoa bezala? Nork ote daki biarnotarrak arbola baten azpira biltzen zirela, Gernikara bizkaitarrak bezalaxe? Nork ote daki Biarnoko mendialdean (Biarnoko «bortian») «bortian») oraindik ere haizkolari apustuak badirela, xirula eta ttuntuna jotzen direla (Santala Orosian bezala!); eta Lacq-en ondoko Monnein-go dantza-taldeen XX mende honen hasipenetan beretan euskal dantzen txapelketetan hartu ohi zutela parte, «ohitura zaharrari jarraituz»? Nork daki gure artean Biarnoko eta Nafarroako foruak ia berdin-berdinak direla? Nork daki gaur Euskal Herrian are Biarnoko eskualdea non dagoen ere?

«Joanak joan», erantzun ohi zuten honen guztiaren berri bazekitenean.

Zer erantzungo, ordea, «Lou Prouclam de Siros» harrigarria irakurrita? Ez dakit, bene-tan. Geroak eranen.

Otsailaren 28an Lescar-era (Paueren ondoan dagoen antzinako Laskurri-ra, alegia) bildu dira Biarnoko alkate eta intelektual batzuk. Eta Alexis Arette-k antzinako Udaletxean, biarneraz, «Lou Prouclam de Siros» deritzan Agiria irakurri du. Laskurri-ko katedrale zaharrean dautzan nafar tarregeen gorputzek ez zuten aspaldi honetan horrelakorik entzun!

«Biarnotar abertzaleak gara» oihukatu du ozenki Arette jaunak (= «Nous sommes des nationalistes bearnais», dio frantses itzulpenak). «Badago kondairan barrena biarnotar nazio bat. Eta orainak ez dezake deusik iraganaren kontra... Horra doinua! Eta honela ekin dio: «No! edo hala... gure herriaren barne-deia hauxe da: bere jatorrizko ondasuna berriro bitlzekoa». Arette jaunak azaldu duenez, biarnes kantuaeren pizkundera gauza lortua da, Siros-en zazpi urtez segidan eratu diren kanta-sariketek argiro erakutsi dute hori; eta biarnerazko kantu berria abiarazia da.

Orain, berriz —azaldu du— gure xedearen bigarren parteari eraso behar diogu: biarnotar kulturaren pizkundera, alegia. Eta horretara dator Siros-ko Agiri hau. Frantsesez eta biarneraz batera argitaratua, Martxoan zabalduko da Biarnoko Herriko Etxe guztiara.

«Zergatik gaur, otsailaren 28an, gure Agiri hau?» —galdetu du Arette jaunak—. Eta berak erantzun: «Zeren-eta Nafarroako Hendrike erregea, gaurte dela 400 urte saiatu baitzen lehenengo aldiz, Parisen preso zelarik, Biarnora ihes egiten». Eta sinboloaren argitasua izukutatu nahi izan gabe, areago argitu Agiriaren funtsa: «Erregeren eskolaren arabera jokatu behar du-gu» (= il faut nous mettre à l'école du Roi).

Biarnotarrek ez dute Fraitziatik berezteko ideiarik aipatu, ez arras baztertu ere. Oso er-moki jakin erazi dute Laskurri-ko beren Biltzar horretan, «erresistentzia», ihardukiera, antolatuta beharra dagoela, Fiztu eta indartu egin behar da Biarnoko hizkuntza. Eta orduan, biarnera eta frantsesa elkarren parean paratuz gero, eta ez lehenago, frantses hizkuntza «beste leiho bat» bilaka daiteke unibertsaltasunari buruz (= une ouverture de plus à l'universalisme). Arte horretan frantsesa Biarnoaren zapaltzaile gertatzen da.

Biarnok —dio oraindik Agiriak— ez du bere berezitasuna edo nortasuna galdu nahi: «Seguru aski egia da, mailaren batetan bederen, Hexagomoa berdintzeko xedea badagoela... Hots, nahikunde hori legean agertuko balitz, erresistentzi-modu guztiak zuzentzeko litzuzke» (= il justifierait toute forme de résistance); «zeren-eta edozein herriren lehendabiziko bete-beharrare bere burua bizirik atxikitzekoa baita».

Xehekiago azaltzen du Agiriak biarnotar abertzaleen pentsaera: «Fraitziaren barruan biarnotar ondasunak salba ezin balitezke, Fraitziarekiko Ituna edo Tratua hautsirik geldituko litzateke... Ala bilatzen ari garen tratu-berrikuntza hori lortuko da, ala Erresumaren puskaketa gertatuko da» (= ou il y aura éclatement de la Nation).

Siros-ko Agiriak hitz ederrik badu gero Nafarroarekiko: «Biarnotar nazioa bere lege berezian arabera hazi da, halako batez beste zenbait herrirekin batera Nafarroako Erreinura sartu arte. Politikoki nafartarrak izanagatik ere, geure nortasun bereziari dagokion aldetik ez digu horrek batere kalterik ekarri. Occitania-tik berezirik atxikiz, Nafarroak biarnotar atxiki gaitu. Biarnotar atxikiko ote gaitu orain Fraitziak? Itorra hor kakoa... Biarnotarrak, horretara, occitano baino nafar tar maiteago. Amets egiten ari garela dirudi.

Eta gero eta nekezago uka daiteke, sumatzen ere ez dugun barne-zuzerikuntza harrigarri batek astintzen dituela Nafarroa zaharraren eskualdeak eta herrialdeak oro. Oso luzaz lozorroan zetzan lehoi zaharra, iratzartzen hasia bailitzan.

LARRESORO

**ZERUKO ARGIA**

Zuzendaria:  
MIREN JONE AZURZA  
ARISTEGIETA

Nafarroa, Kantauri eta Aragoiko Kaputxinoek argitaratua. (Kale Nagusia, 50-1.º Buralda - IRUIÑEA).  
Donostian: Okendo, 22  
Tel. 41 95 88

**ARPIDE SARIA:**  
Barruan 350 pezeta  
Korreo batasunetako herrietan 400 pezeta  
Atzerrietako beste herrietan 420 pezeta  
Airez Aldez aurretik galdetu

Salmenta (ale bakoitza) 8 pezeta  
Moldiztegia eta Idazkolaria: «Gráficas Navasal»  
A. Adoain, 1. IRUIÑEA  
D. L.: NA. 80-1963